

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

4096

AGINDUA, 2014ko irailaren 24koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, zeinaren bitartez, batetik, 2014. urteari dagokionez, kudeaketa-, ordezte- eta aholkularitza-zerbitzuak ezartzeko laguntzerako deialdia egiten baita, eta, bestetik, argitara ematen baita nekazari gazteek jarduera hasteko laguntza osagarri nazionalaren guztizko zenbatekoa.

Nekazaritzarako egiturazko eta ingurumeneko laguntzei buruzko uztailaren 8ko 133/2008 Dekretuaren 12. artikuluan bitartez, zera ezartzen da: EAEko nekazaritzako eta basogintzako ustiategiak ezartzeko edo kudeaketa-, ordezte- edo aholkularitza zerbitzuak egokitzeko laguntzak emango direla; betiere, nekazari eta basogin gazteentzat errazagoa izan dadin euren ustiategiak egokitu, hobetu eta kudeatzea, eta, bestetik, ustiategion errendimendu globala areagotzeko laguntasuna izan dezaten.

Halaber, 29. artikuluan xedatzen denez, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailbururen (egun, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua) agindu bidez, aipatu dekretuko 12. artikuluan aurreikusitako laguntzetarako deialdia egingo da. Deialdi horretan, ekitaldi bakoitzerako eskabideak aurkezteko epeak ezarriko dira, eta, bestalde, ekitaldi bakoitzari dagokionez ezagutzera emango da honako hau: Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren eta LGNEFen kargura emango diren laguntzen guztizko zenbatekoa.

Nekazari gazteak instalatzeko laguntzei dagokienez, uztailaren 8ko 133/2008 Dekretuko 10. artikuluan honako hau ezartzen da: dekretu horretako aurreko artikuluan aurreikusitako laguntzaz gain, nekazari gazteei laguntza osagarri nazionala eman ahal izango zaie, betiere bat etorriaz delako artikuluan aurreikusitako betekizun, irizpide eta prozedurekin.

Halaber, 27. artikuluan xedatzen denez, Nekazari Gazteentzako Bulegoaren ardura duen foru organoan aurkeztu beharko dira nekazari gazteak instalatzeko laguntza bi horien eskabideak, betiere foru aldundiek zehaztutako epean, lekuan eta eran, eta, bestalde, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren (egun, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua) agindu bidez argitara emango da: aipatu dekretuko 10. arabera aurrekontu-ekitaldi bakoitzaren barruan emango diren laguntzen guztizko zenbatekoa; EAEko Aurrekontu Orokorren kargura izango dira laguntza horiek. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Xedea.

a) 2014. urteari dagokionez honako laguntza hauetarako deialdia egitea da agindu honen helburua: Nekazaritzarako egiturazko eta ingurumeneko laguntzei buruzko uztailaren 8ko 133/2008 Dekretuaren 12. artikuluan aurreikusitako kudeaketa-, ordezte- eta aholkularitza-zerbitzuak ezartzeko diren laguntzak.

b) Agindu honen xedea honako hau ere bada: uztailaren 8ko 133/2008 Dekretuko 10. artikuluan aurreikusitako laguntzarako, hau da, nekazari gazteak instalatzeko laguntza nazional osagarriko baliabideak argitara ematea.

Bigarrena.— Kudeaketa-, ordezte- eta aholkularitza-zerbitzuak ezartzeko laguntza-eskabideak aurkezteko epea.

Kudeaketa-, ordezte- eta aholkularitza-zerbitzuak ezartzeko laguntza-eskabideak Eusko Jaur-laritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzan aurkezteko dira. Hilabeteko epea egongo da horretarako, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera

Agindu honen eranskin gisa datorren eskabide-ereduarekin bat etorritik aurkeztu beharko dira eskabideak. Eredu horretan, eskatzen den laguntzaren zenbatekoa zehaztuko da, eta bai aholku-larritza-kontzeptuak banakaturik eta horietako bakoitzaren zenbatekoak ere.

Hirugarrena.— Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Kudeaketa-, ordezte- eta aholkularitza-zerbitzuak ezartzeko laguntza-eskabidearekin batera, honako dokumentuak aurkeztuko dira:

- Nekazaritzako ustategiei aholkularitza emateko entitate gisa onartuta dagoela egiaztatzen duen agiriaren kopia, edo
- Basoen kudeaketa-plan iraunkorrak ezartzeko aholkularitzarako erakunde onetsi gisa Euskadiko Basogintza Elkarleen Konfederakundekoa dela egiaztatzen duen agiriaren kopia.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetik dituela egiaztatzen duten agiriak.
- Jasotako beste diru-laguntza batzuen zerrenda, uztailaren 8ko 133/2008 Dekretuaren 7. artikuluan aurreikusitako bateragarritasun-irizpideak eta 12.5 artikuluan adierazitako mínimis erregimenaren mugak betetzen direla egiaztatzeko.
- Nekazaritzako eta basogintzako ustategien zerrenda, zeintzuekin eskabidea aurkeztu aurreko urtean zehar aholkularitza-zerbitzuak kontratatu baitira.
- Ematen diren zerbitzu-motak.
- Eskabidea aurkezten den urtean zehar egingo diren ondasun inbentariagarrietako inbentsioen, langile-gastuen eta diruz lagun daitezkeen prestakuntza-gastuen zerrenda, uztailaren 8ko 133/2008 Dekretuko 12.4 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

Laugarrena.— Prestakuntza-gastuak.

a) Ezagutza eta gaitasunetarako prestakuntzari lotutako laguntzetarako gastutzat honako hauek onartuko dira: aholkularitza-zerbitzuak emateko entitate aitortu direnek eskaini beharreko gaietako funtzioak burutzeko direnak, betiere Nekazaritzako ustategien aholkularitza-entitateei buruzko abenduaren 26ko 272/2006 Dekretuaren 2. artikuluen a) idatzi-zatitik h) idatzi-zatira ezarritakoak direlarik aholkularitza-zerbitzuok.

b) Diruz lagun daitezkeen prestakuntza-gastuen artean sartzen dira aholkularitza-entitateetako langileen jardunaldi, ikastaro, graduondoko titulazio eta antzekoetako inskripzio-gastuak, baita entitate horietako langileen prestakuntzara bideratutako gertakizunak antolatze-ko gastuak ere. Diru-laguntza honen xede diren gastuen artean ez dira sartzen honako hauek: joan-etorriei, ego-naldiei eta dietei dagozkienak.

Bosgarrena.— Kudeaketa-, ordezte- eta aholkularitza-zerbitzuak ezartzeko laguntzetara bideratutako baliabideen guztizko kopurua.

2014ko aurrekontu-ekitaldian, kudeaketa-, ordezte- eta aholkularitza-zerbitzuak ezartzeko laguntzak finantzatzeko eman beharreko baliabideen guztizko kopurua 107.812,50 eurokoa izango da, gehienez ere; horietatik 38.812,50 euro LGENFren kargura izango dira, eta 69.000 euro, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura.

Era berean, gehienezko kopuru horretatik % 90 (97.031,25 euro) nekazaritzako ustategiei kudeaketa-, ordezte- eta aholkularitza-zerbitzuak ematen dizkieten entitateentzat izango da, eta % 10 (10.781,25 euro), basogintzako ustategiei kudeaketa-, ordezte- eta aholkularitza-zerbitzuak ematen dizkieten entitateentzat. Dena den, lerro edo entitate-mota horietako bakoitzarentzat guztiz erabiltzen ez diren soberakinak edo kopuruak beste lerro edo entitate-mota batentzat erabili ahal izango dira.

Seigarrena.– Nekazari gazteak instalatzera bideratutako laguntza nazional osagarriaren guztizko zenbatekoa.

Euskal Autonomia Erkidegoaren 2014. urterako Aurrekontu Orokorretan hartarako ezarritako kontu-sailetik etorriko dira neurri hau finantzatzeko kredituak; kreditu horien guztizko zenbatekoa 705.000 eurokoa izango da; eta horietarik 470.000 euro 2014ko ekitaldiko kredituen kargura izango dira, eta 235.000 euro konpromiso-kreditu izango dira, 2015eko ekitaldiaren kargura.

Zazpigarrena.– Errekurtsoak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta berorren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dakioket interesdunek Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean. Kasu bietan, agindua argitaratu eta biharamunean hasiko da epea.

Zortzigarrena.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko irailaren 24a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

ERANSKINA

KUDEAKETA, ORDEZKAPEN ETA AHOIKULARITZA ZERBITZUAK EZARTZEKO LAGUNTZA

..... URTEA

Eskatzailearen datuak:

NAN/IFK:

Entitatea:

Helbidea:

Posta-kodea Helbidea:

Telefonoa: Faxa: Posta elektronikoa:

133/2008 Dekretuaren 12. artikuluan ezarritako laguntza eskatzen du; horretarako, dekretu horren 29. artikuluan eskatutako dokumentazioa aurkezten du, hau da:

- ☐ Nekazaritzako ustategiei aholkularitza emateko entitate gisa onartuta egotearen ziurtagiriaren kopia, edo
- ☐ Euskadiko Basogintza Elkarteen Konfederakundearen kide dela adierazteko agiriaren kopia.
- ☐ Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik daudela egiaztatzen duen agiria.
- ☐ Xede horretarako jasotako beste diru-laguntzen zerrenda, edo
- ☐ Xede horretarako bestelako diru-laguntzarik ez dela jaso adierazteko erantzukizunpeko aitortpena.
- ☐ Eskabidea aurkeztu aurreko urtean aholkularitza-zerbitzuak kontratatu dituzten nekazaritza- eta baso ustategien zerrenda.
- ☐ Eskainitako zerbitzu-motak.
- ☐ Eskabidea aurkezten den urtean egin beharreko gastuen zerrenda: ondasun inbentariagarrietan egindako inbertsioak, diruz laguntzeko moduko langile gastuak eta prestakuntza gastuak. Dirulaguntza-eskaera hau gastu horiei dagokie.

☐ Eskatutako guztizko zenbatekoa:

☐ Aholkularitza kontzeptuak banakatzea eta bakoitzaren zenbatekoa:

Eskabidean jaso diren datu guztiak egiazkoak direla adierazten du.

.....n, ..(e)koren(e)(a)n.

Sin.: